

Bortuko ardi gasna egitea 1930 hamarkadan

E.: Gasna egiten aitaikin ikasi uxu, beraz. Nola egiten zen lehen gasna?

B.: ba, oai bezala ba, berdin.

E.: ze sasoinetan?

B.: ori maiatzian, maiatzian iten zen gasna, maitzian ta ekaina, bi ilaite iten zen, uztailea leen artio, gero uzten zien berriz indarra artzea ardiak, eta ola.

E.: ta nola egiten zinuten gasna?

B.: leenik bear zen esnia bildu, ta gero, bildu zelaik, gure etxean ez baitzen tropa aundia, bezperako esnia eta goizekoekin iten ginien goiz guziz gasna ttipi bat, bezperakoak ta hotzak baitzien, berotu puxka at, epeldu, ta emaiten zen gatxagia, pressure-a edo nola erten da oai, gatxagia zen denbora etan, etxeko bildots batetaik iten zen, eta aekin, ta uzten zen oren bat, kallatia goortu zelaik, ua iten zen naasi, xeatu ta gero berotu, eskura, zautzen ginin unenbeste degretaano berotu, apepres, eh! Ta geo uzten zen oren erdi bat pausatzea, ta bi eskiekin emaiten zen forma, itzulian, ta geo bazien xortxiak eta xortxepekoa, heen gaiñean estekatzen zen, tinkatzen, ta eskiekin gaxura kendu artio zapa, ta geo taulan emaiten zen biamun goizian, xukatzen, eun guziz itzuli, ta gatzia eman, puxka at, bizpalau egunez, ta ola.

E.: eta gero erretzen ziren suiaren aitzinean?

B.: denbora etan ba. Gero galdu zen moda ori. Brasa iten zen, brasa artan iten zen xinatuik, biziki itxura pollita artzen zien, ta ola. Ez dakit zendako, gaxurain kentzeko iten zen, nik uste ua, gaxura kentzen zen obeki.

E.: eta esnea garbirik ukaiteko, oihalik ez zuxun or memento artan, ordu aietan. Nola iten zen?

B.: ez. Ordian eta baziren zurez, etxetan inezko zer batzu, nola erten da? Gaiñez largo ta beeditio ta ertsio, ta han asuna biltzen zen, asuna tinki-tinkia eman, ta geo borturat, hemen jin ginelaik, ni mutil egon niz emen, iratze idorra biltzen ginien, iatze idor ua, zare ttinki-ttinkia ta hura, garbitu leenik, hurez pasa, ta gero esnia pasa, garbitze... Garbi-garbia eldu zen. Orduko moda, gero asi zien oihal oriek, leterietatik eta ola.

E.: eta xu, artzain asi xirelarik, segitu uxu axuriak, bildotsak saltzen Donibane-Garaziko merkatuan?

B.: hori niaundako hasi nizalaik. Bestenez, etxekoak zien, aita, eta gero anaia zaarrena etxean plantatu baitzen, gero hua segida hak iten zien. Ni, niaun gaiñ asi nizalaik, ardi... ardikin, ordian ba, ordian saltzen nitin niaurek bildotsak.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala